



## **PORTUGALETEKO UDALAREN 2019KO AURREKONTUARI HERRITARREN PARTE-HARTZEA ERANSTEN PROZEDURA**

*“Portugaleteko Udalbatzak 2018ko ekainaren 28an aho batez onetsia”*

### **ZIOEN AZALPENA**

Gaur egungo gizarteak politika egiteko era berriak eskatzen ditu, garai eta arazo berriek jarrera eta irtenbide berriak ere eskatzen dituzten era berean. Eskakizun horri erantzuteak badakar berekin herritarrak bizitza instituzionalean parte hartzera bultzatzea.

Herritarren parte-hartzeaz mintzatzen garenean herritarrak eta gizarte-lankidetzaz nagusi diren prozesuez ari gara. Haiek administrazioak hartutako erabakiak osatzeaz gain, zilegitasun handiagoa ematen diete.

Herritarren parte-hartzeak publikoaren kudeaketa eraikitzea ahalbidetzen du betiere gertutasunetik. Ondorioz, herritarren kezkek politikarien zereginetan txertatzen dira eta, konfidantza-giroa, halaber, sortzen da herritarren ordezkartzan dihardutenen lanetatik hurbilago egoteko.

Ikuspegi horretatik abiatuta, politika publikoen emaitzak hobetzen saiatzen denez azken batean, herritarren ongizatea ere lortzen da.

Politika publikoak hezurmamitzeak ahalik eta herritar gehienek parte-hartzeko, iritzia emateko eta kolaboratzeko guneak irekitzera garamatza ezinbestez. Horri jarraiki, Portugaleteri ondoen doitzen zaion eredia bilatuz joango gara.

Aurrekoaren harira, Udalaren ardurapeko herritarren parte-hartze instituzionalaren politika bultzatuz gero helburu eta arau argiak dituzten oinarri formal batzuk erabili beharko dira. Oinarriok helburuak lortzera egokitutako prozesu parte-hartzaileen funtzionamendu egokia bermatu behar dute.

Honengatik guztiagatik, 2012ko otsailean Gizarte Parte-Hartze eta Berrikuntza Saila, Alkatezari atxikia, hain justu ere, eratu zuten. Sailak herritarren parte-hartzeari pentsamendua, gogoeta eta edukia ere hornitu nahi dizkio parte-hartze maila desberdinak dituzten prozesuak bultzatu eta abiarazteko xedez.

Ordutik hona, Udalaren hainbat sailek prozesu parte-hartzaile batzuk ireki dituzte kasuan kasuko metodologia egokia aplikatuta. Hori horrela, kudeaketa-eredu parte-hartzaileago bat eraikitzen dihardugu demokrazioaren arauak, eragile bakoitzaren erantzukizuna eta erabakiak hartzeko zilegitasuna ere ahaztu gabe.



Bestalde, Euskadiko Toki Entitateei buruzko apirilaren 7 ko 2/2016 Legeak oraingo prozesuari aplikatu dakiokeenari dagokionez hauxe dio: " Euskal tokiko entitateek kontsulta- edo herri-erabakimen prozesuak abian jarriko dituzte entitatea hurrengo ekitaldian aurrekontuak prestatzen hasten denean erabakiak definitzeko edo gastuari dagokion unean uneko alderdiak erabakitzeko xedez, betiere, bere ezaugarriak eta errealitatea kontuan hartuta eta egokien bidezkoesten dituen gaiei dagokielarik.

Aurrekoaz gain, arestian aipaturiko legeak ezartzen du arautegiek, ordenantzek edo Udalaren akordioek berek ardaztuko dituztela herritarrek parte-hartzeko modalitate zehatzak.

Hartara, Portugaleten 2017. urtean Udalaren erabakimena eta kudeaketa aberastu behar duten gune eta prozesu parte-hartzaileak bultzatzeko xedez eta aurretik aipatutako baldintza eta arau legezkoak kontuan hartuta, aurrekontu parte-hartzaileak egiteko lehen prozesuari ekin zitzaion. Udalbatza osoak adostu zuen prozesu horretan 2018ko aurrekontuen zati bat alboratu zen Portugaleteko herritarrek zuzenean erabaki zezaten zer egin harekin.

Udalbatzaren bilkura berean Gobernuak, talde politikoek eskatuta, engaiamendua agertu zuen 2018an iazko esperientziari segida emateko. Horri jarraiki, beraz, prozesuari denbora gehiagoz helduko litzaioke eta erreserbatutako zenbatekoa gehitu egingo litzateke.

Azken batean, 2017ko prozesuaren emaitzak lagungarri behar du izan Portugaleteko aurrekontu parte-hartzaileak 2018an egiten jarraitzeko; 2019ko aurrekontuak prestatzeko orduan, hain zuzen.

Horiek horrela, iaz eginiko prozesua aztertu eta balioetsi ondoren 2018rako prozeduran fase berri bat sartuko dugu zeinetan proposamenak jaso ondoren eta bozketa egin aurretik entzunaldi publiko bat egingo baita. Izan ere, horri esker prozesuak gardentasun handiagoa izango du.

Bizkaiko Tokiko Erakunde Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak xedatzen duenaren arabera, erakunde autonomo nahiz atxikitako partzuergoetako aurrekontua –hala badagokio-aurrekontu orokorraren barnean egonik eta haien organo eskumendunak behin-behinean proposatutakoa izanik, menpeko diren Toki Erakundeko presidenteari bidali beharko zaio urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen.

Enpresaritzaren erakunde publikoak, atxikitako partzuergoak - hala badagokio- eta Erakunde Publikoak Toki Erakundeko presidenteari bidali beharko dizkiote urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen Foru Arauaren 6. artikulua ezartzen dituen agiriak. Toki Erakundeko presidenteari, kontularitzako egoeretatik abiatuta aurrekontu administratiboaren egitura ekonomikoari dagozkionak eratuko ditu, gutxienez artikulua gisara.

Honengatik guztiatik, aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren emaitzak urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen amaituta egon behar du indarreko araudiak ezartzen duenarekin bat etorri. Izan ere, kontularitzako aurrekontuak eta



aurreikuspen-egoerak oinarritzat harturik, toki-erakundeko presidenteak aurrekontu orokorra eratu beharko du. Geroago, Kontu Hartzailtza Sailak 6. artikulua zehazten dituen eranskin eta agiri guztiak baliatuta informazioa emanda eta urriaren 15a baino lehen arauzko izapideak eginda, Udalbatzari igorriko zaio hark onetsi dezan, zuzenketak egin ditzan edota itzul dezan.

Udalbatzak edo Gobernu Batzordeak Aurrekontu Orokorrari hasierako onespenean onetsitako berbera izanik onespene behin-betikoa ematen badio aurrekontuak aplikatu beharreko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago egin beharko da.

Berebat, biztanlearen gazte kopuruaren parte-hartzea oso eskasa izan denez, Udalak beharrezko iritzi dio gazteekin eurekin berariazko prozesu bat ikastegietan bertan egiteari gazteek parte hartuko badute.

## 1. PROZEDURAREN HELBURUA

Prozedurak helburutzat du Portugaletako Udalaren aurrekontu parte-hartzaileei buruzko kontsulta-prozesua arautzea. Izan ere, prozesuari esker herritarrek aukeratuko dute zertan erabili Udalak 2019. urterako duen aurrekontu-zati bat.

Prozedurak bi prozesu batera abian jartzea dakar:

- Prozesu aholku-emailea, herritar orori zuzendua.
- Eztabaida egiteko eta aholku emateko prozesua, Portugaletako gazte eskolatuei zuzendua delarik.

## 2. ZENBATEKOA

Esan bezala, Portugaletako herritarrek 2019. urteko aurrekontuen zati bat zertarako erabili nahi duten erabakitze modua izango dute prozesua baliatuta. Aurrekontuaren zati horren zenbatekoa 400.000 eurokoa da.

- 350.000,00 €, herritar ororen prozedura aholku-emaileari esleitzekoa.
- 50.000,00 €, Portugaletako gazte eskolatuei zuzenduriko prozesuari esleitzekoa; eztabaida egiteko eta aholku emateko prozesua delarik.



### **3. EMAITZAREN IZAERA LOTESLEA**

Aurrekontu parte-hartzaileei buruzko prozesutik ateratako emaitza Udalak onartuko du. Honenbestez, emaitzen izaera loteslea izango da. Ondoren, Portugaleteko Udalaren 2019ko aurrekontu-proiektuari txertatuko zaio, legezkotasunaren txosten arautzaileak “ad cautelam” kontuan hartuta eta behin Udalbatzak onetsita. Hori guztia ahalbidetuko da prozesu orokorrari dagokionez parte hartzeko betekizunak betetzen dituzten pertsonen %1ek gutxienez botoa eman badu; eta gazteen prozesuari dagokionez lau ikastegik bederen parte hartzen badu.

Bozketa-prozesu orokorrean parte hartu duten herritarren kopurua erroldan parte hartzeko betekizunak betetzen dituzten pertsonen %1 baino gutxiagokoa bada, alkateak behin Udalaren talde politiko guztien bozeramaileak entzunda, prozesu parte-hartzailearen emaitza kontuan hartuko du.

Portugaleteko gazte eskolatuei zuzenduriko prozesu parte-hartzaileari dagokionez, parte hartzen duten ikastegi-kopurua 4 ikastegi baino gutxiagokoa bada, alkateak behin Udalaren talde politiko guztien bozeramaileak entzunda, erabakiko du ea prozesu parte-hartzailearekin jarraituko den ala ez. Kopurua 4 ikastegikoa bada edo kopurua gainditzen badu, prozesua abian jarriko da. Ondorioz, emaitzak izaera loteslea izango du.

### **4. ZABALKUNDEA, INFORMAZIOA ETA EPEAK**

Proiektuaren zabalkunde handia egingo da Portugaleteko edozein herritarrek ezagut dezan eta hala nahi izanez gero, parte har dezan. Betekizunak eta fase desberdinetako epeak ere herritarrei jakinaraziko zaizkie. Horretarako, hainbat informazio- eta komunikazio-bide gaituko dituzte.

Portugaleteko Udalak nahiko aurrerapenez “Portugalete Hiri Lagunkoia” proiektuaren talde eragilearen elkarlanean Portugaleteko gizarte-etxeetako nagusiei prozesuari buruzko informazioa helaraziko die Aurrekontuei buruzko Foru Arauarenepeak bete daitezzen.

Nagusiek ere behin informatuta eta arduraz parte har dezaten gizarte-etxeetan eta Udalak ezarritako tokietan “Portugalete Hiri Lagunkoia” proiektuaren talde eragilearen elkarlanean oinarritzko informazioa jasoko dute Udalaren aurrekontu parte-hartzaileei buruz. Zehazki, prozesuaren alderdiok ezagutaraziko zaizkie: proposamenen biltzea, betekizunak, bozketa bera eta emaitzaren trataera.

Aurreikuspena da prozesuaren fase guztiak 2019rako aurrekontuen proiektua aurkeztu baino lehen amaituta egotea.



## 5. PROZEDURAREN INTERPRETAZIOA

Prozedura honen aplikazioaz ulermen-arazorik edo zalantzarik balego alkateak interpretatu eta ebatzi beharko luke behin zinegotziei Gobernu Ireki eta Herritarren Parte Hartze eta Berrikuntza Batzorde Informatzaile Iraunkorren entzunaldia eginda.

## 6. HERRITAR ORORI ZUZENDUTAKO PROZESU AHOLKU-EMAILEA

### 6.1. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

Parte-hartzea banakoa izango da. 16 urte duten edo 16 urtetik gorako herritar guztiek parte hartu ahal dute baldin eta Portugaleten erroldaturik badaude.

Prozesuan parte hartzeko, erroldaturik dagoen herritarraren adina Udalaren erroldatzearekin erkatuko da behin parte-hartzaileek baimena emanda.

### 6. 2. PROZEDURAREN FASEAK:

- a) Aurkeztu proposamenak
- b) Aurkeztu jendaurrean bozkatu beharreko proposamenak
- c) Bozkatu proposamenak

### A. AURKEZTU PROPOSAMENAK

#### a) Proposamenen betekizunak:

- Proposamenek Udalaren eskumeneko ideiak, iradokizunak eta proiektuak bildu beharko dituzte.
- Proposamenaren kostuak ezin du 350.000 euroko kopurua gainditu.
- Proposamenek hala ikuspuntu teknikitik nola ekonomikitik bideragarri izan behar dute.
- Proposamenek zehatzak eta zenbakarriak izan behar dute.
- Udalaren interes publikokoa izan behar da; beraz, ezin da pertsona baten interesekoa izan ezta interes pribatukoa ere.
- Proposamenek legezkoak izan behar dute
- Proposamena egiten duen herritarrak proposamenarekin batera behar bezala identifikaturik egon beharko du.
- Erroldaturik ez dagoen edo Udalaren erroldarekin erkatzeko besteko informaziorik ez duen herritarraren proposamena ezetsi egingo da.
- Proposamenak egiteko berriazko galdetegi-eredua erabili beharko da ezinbestez.
- Ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten proposamenak ezetsi egingo dira.



b) Proposamenak aurkeztu

- Herritarrek proposamen bakarra aurkeztu ahalko dute.
- Proposamenak berariazko galdetegiak erabilita aurkeztuko dira eta behar bezala identifikaturik egongo dira.
- Proposamenak aurkezteko ondoko bi bide hauek ditugu:
  - Aurrez aurrekoa:
    - Herriko zenbait kaletan herritarrei informazioa emateko paratuko ditugun karpetangaldetegi-eredua utziz.
    - Aurretik iragarriko ditugun Udal zentroetan paratuko ditugun hautetsontzietan galdetegi-eredua utziz.
  - Lineakoa:
    - [www.portugaleteON.org](http://www.portugaleteON.org) webgunean gaitutako ataleko galdetegia betez. Horretarako, ezinbestekoa da sisteman aurretik izena ematea eta ondorengo berrespena jasotzea.
- Proposamenari informazio edo irudi gehigarriak erantsi dakizkioke haren edukia hobeto ulertuko bada. Horretarako, proposamenarekin batera behar bezala identifikaturik joan beharko dute.

c) Proposamenak onartu, sistematizatu eta teknikoki balioetsi

Behin proposamenak jasota, Udalaren eroldarekin erkatuko dira parte hartu ahal izateko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko xedez.

Halaber, proposamenek a atalak dakartzan betekizunak betetzen dituztela ere egiaztatuko da. Horretarako, Udalaren hainbat sailek proposamenak aztertuko dituzte jakiteko ea teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen. Eskatutako betekizunik gabeko proposamenak ezetsi egingo dira. Jarraian, interesdunei jakinaraziko zaie proposamenak onartuak ala ezetsiak izan diren. Erabakiaren aurka jotzeko interesdunek jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita, astebeteko epea izango dute alegazioak ere aurkeztu ahal izateko. Alegaziook Gobernu Ireki eta Herritarren Parte Hartze eta Berrikuntza Batzorde Informatzaile Iraunkorrak landuko ditu.

## **B. AURKEZTU JENDAURREAN BOZKATU BEHARREKO PROPOSAMENAK**

Teknikoki nahiz ekonomikoki bideragarriak diren proposamenak zerrendatu egingo dira. Ondoren, proposamenok alkateak onetsiko ditu behin udal talde politiko guztien bozeramaileak behin entzunda bozeramaile-batzen.

Eduki bertsua duten proposamen guztiak proposamen bakarrean batuko dira. Bozketa egin aurretik alkateak proposamen horien guztien zerrendaren berri



emango die herritarrei entzunaldi batean. Horretarako, Portugaleteko hainbat tokitan lau bilera gutxienez antolatuko dira herritarrei proposameneren berri emate aldera.

Bilera horietan proposameneren sustatzaileek proposameneri nabardurak, argibideak eta birformulazioak egin diezazkiekete, non eta berebiziko aldaketarik edo eraldaketarik eragiten ez dieten.

Udalaren hainbat sailek eginiko azterlan teknikoa eta ekonomikoari jarraiki bideragarritasunik ez duten proposameneren parte-hartzaileei eurei jakinaraziko zaie zergatik erabaki den hori. Ahalbait azkar eta eraginkorren egiten saiatuko da, betiere, entzunaldi publikoko bilerak egin aurretik.

### **C. BOZKATU PROPOSAMENAK**

Parte hartzeko betekizunak betetzen dituen herritarrak boto bakarra emateko eskubidea izango du. Orobat, botoan proposamen onetsien zerrendatik bost proposamen aukeratu beharko ditu hurrenez hurren.

Beraz, botoa emateko inprimaki edo boto-txartela bete beharko da bost proposameneren arteko lehentasun-ordena adieraziz, hots gustukoenetik gutxienera. Horiek horrela, parte-hartzaileen adostasunik gehien lortzen duten proposamenak lehenetsi egingo dira.

#### a) Botoaren izaera eta ematea

Botoa isilpekoa da eta NANaren zenbakia emandako bototik kendu egingo da pribatutasuna bermatze aldera. Portugaleteko Udalak- botoa kenduta- botoa eman dutenen NAN zerrendan sarbidea izango du.

Parte-hartzaileari NANA eskatuko zaio herritarrek boto bakarra emango dutela bermatu ahal izateko eta Udalaren erroldan egiaztapena egiteko ere bai. Botoa emateko bideak bi hauek izango dira: aurrez aurrekoa eta lineakoa. Dena delarik ere, parte-hartzaileak bide biak erabiliko balitu aurrez aurrekoa baino ez litzateke aintzat hartuko.

#### Aurrez aurrekoa:

##### o Aurrez aurrekoa:

- Herriko zenbait kaletan herritarrei informazioa emateko paratuko ditugun karpitangaldetegi-eredua utziz.
- Aurretik iragarriko ditugun Udal zentroetan paratuko ditugun hautetsontzietan galdetegi-eredua utziz.

##### o Lineakoa:



- [www.portugaletaON.org](http://www.portugaletaON.org) webgunean gaitutako ataleko galdetegia betez. Horretarako, ezinbestekoa da sisteman aurretik izena ematea eta ondorengo berrespena jasotzea.

b) Botoak zenbatu

Parte-hartzeko betekizunak betetzen ez dituzten parte-hartzaileen botoak baliogabetuko dira.

Bost proposamen baino gutxiago adierazten dutenen botoak baliogabetuko dira.

Aitzitik, bost proposamen baino gehiago, errakuntzaz, adierazita badaude, lehenengo bost proposamenak soilik aintzat hartuko dira.

Botoak zenbatzeko orduan lehentasunaren ordenaren arabeko proposamenei ematen zaien puntu-esleipena hartuko da aintzat. Zenbaketarako Dowdall metodoari jarraituko diogu. Honatx azalpena:

- Lehen tokian aukeratutako proposamena: puntu 1
- Bigarren tokian aukeratutako proposamena: puntu erdi
- Hirugarren tokian aukeratutako proposamena: heren bat puntu
- Laugarren tokian aukeratutako proposamena: laurden bat puntu
- Bosgarren tokian aukeratutako proposamena: bosten bat puntu

Bozketaren emaitza hauxe izango da: proposamen bakoitzak lortutako puntu guztien batuketara. Bozketaren metodo horrek emaitzen proportzionaltasuna bermatzen du. Halako moldez, herritarren adostasun gehien duten proposamen hautatuak sustatu nahi ditu.

### **6.3 EMAITZEN BERRI HERRITARREI EMAN**

Behin prozesua burututa eta emaitzak edukita herritarrei emaitzen berri emango zaie aurkezpen batean. Emaitzok Udalaren hainbat bidetatik ere zabalduko dira.

Orobat, Gobernu Ireki eta Herritarren Parte Hartze eta Berrikuntza Batzorde Informatzaile Iraunkorrean prozesuaren zehazkizunen gaineko txosten bat mahairatuko da.

Aurkezpen publiko hori aurrekontuaren hasierako onespenera aurretik egingo da.





## **7.PORTUGALETEKO IKASTETXEETAKO GAZTEEK AURREKONTUEZ EZTABAIDA EGITEKO ETA AHOLKU EMATEKO PROZESUA**

### **7.1. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK**

Ikastegiek parte hartu nahi badute, Portugaleten eskolatuta dauden 16 eta 20 urte bitarteko gazte orok parte hartu ahalko du.

Udalerrian erroldatuta ez dauden ikasle eskolatuak proposamenak jasotzeko prozesuan parte hartu ahalko dute baita haien gainean eztabaidatu ere. Hala eta guztiz ere, ez dute bozketan parte hartzerik izango.

### **7.2. FASEAK**

- A. Aurkeztu ikastetxeei prozesua eta parte hartzera gonbidatu
- B. Proposamenak jaso
- C. Eztabaidatzeko fasea. Eztabaidatzeko foroa
- D. Bozkatu proposamenak

#### **A. AURKEZTU IKASTETXEEI PROZESUA ETA PARTE HARTZERA GONBIDATU**

Hamasei (16) urtetik gorako ikasleak dituzten Portugaleteko ikastegiek nahiko aurretiaz Portugaleteko Udalaren gonbita jasoko dute erabakitzeke ea parte hartuko duten ala ez. Hori horrela, Aurrekontuen gaineko Foru Arauak ezartzen dituen epeak bete ahalko dira.

Ikastegiek berek erabakiko dute askatasun osoz ea parte hartuko duten ala ez, zein ikaslerekin, zein mailatan eta zein ordutegitan.

Gazteekiko prozesuak aurrera jarraituko du baldin eta lau ikastegi parte-hartzaile gutxienez badago. Ikastegi kopurua lautik beherakoa izanez gero, alkatearen esku geratuko da gazteekiko prozesuari segida ematea ala ez, bozeramaile-batzen udalaren talde politiko guztien bozeramaileekin entzunaldia behin eginda. Prozesuak aurrera jarraitu ezik, helburuari esleituriko 50.000 euroak prozesu orokorraren kopuruari gehituko zaizkio. Ondorioz, kopuru orokorra 400.000 eurokoa izango litzateke.

#### **B. PROPOSAMENAK JASO**

Ikasleek informazioa edukitzeko eta arduratsu jokatzeko, ikastegietan Udal aurrekontuei buruzko oinarrizko ezagupen batzuk jasoko dituzte, hala nola zer denaurrekontuetan herritarrek parte-hartzea eta bertoko prozesuari buruzko alderdi zehatzak. Alderdiok hauexek izango dira: proposamenen biltzea, eztabaida egiteko foroaren betekizunak eta garapena, bozketa bera eta emaitzen tratamendua.



Proposamenak taldeka egin beharko dira. Hau da, ikastegi parte-hartzaileek gehienez hiruna proposamen aurkeztu beharko dute, prozesuan aurretik ikasle parte-hartzaileekin adostuak, hain zuzen ere. Proposamenok Udal teknikariek balioetsiko dituzte geroago. Haiei dagokie esatea ea teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren. Proposamen horietako bat ezetsiko balute, ikastegiak gehienez badaezpada hiru proposamen gehiago aurkezteko aukera izango luke. Beraz, hala badagokio, ikastegia zain geratuko litzateke jakiteko zein den hasierako hiru proposamenen balioespen tekniko eta ekonomikoa.

a) Proposamenen betekizunak:

- Proposamenek Udalaren eskumeneko ideiak, iradokizunak eta proiektuak bildu beharko dituzte.
- Proposamenaren kostuak ezin du 50.000 euroko kopurua gainditu.
- Proposamenek hala ikuspuntu teknikitik nola ekonomikotik bideragarri izan behar dute.
- Proposamenek zehatzak eta zenbakarriak izan behar dute.
- Udalaren interes publikokoa izan behar da; beraz, ezin da pertsona baten interesekoa izan ezta interes pribatukoa ere.
- Proposamenek legezkoak izan behar dute
- Proposamenek ezinbestez ez dute gazteen onurako soilik izan behar.
- Ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten proposamenak ezetsi egingo dira.

b) Proposamenen biltzea

Ikastegi bakoitzak erabakita eta dinamika metodologikoa aukeratuta, ikasleek aurreko atalean ezarritako betekizunak betetzen dituzten proposamenak bete beharko dituzte.

Ikasleek eginiko proposamenen biltzea ikasle parte-hartzaileen ikastegian bertan egingo da. Ikastegiek erabakiko dute zein ordutan eta zein eratarik egingo den.

Proposamenek ondoko puntu hauek eduki behar dituzte:

- Izenburua
- Proiektu-proposamenaren deskripzio laburra
- Nori edo nortzuei mesede egingo liekeen
- Kokapena
- Marrazkiak, argazkiak, bideoak edo planoak (aukerakoa)
- Gutxi gorabeherako kostua



### **C. EZTABAIDA EGITEKO FASEA. EZTABAIDA EGITEKO FOROA**

Ikastegi parte-hartzaileek gehienez hiruna proposamen aurkeztu beharko dute. Horietaz gain, badaezpadako hiru proposamen gehiago aurkezteko aukera izango dute.

Beraz, ikastegia zain geratuko litzateke jakiteko zein den hasierako hiru proposamenen balioespen teknikoa eta ekonomikoa.

Ikastegi bakoitzak eztabaida egiteko foro bat antolatuko du helburu duelarik proposamen guztietatik hiru aukeratzea Udal teknikariek balioespena egiteko eta, hala badagokio, bozketara pasatzeko.

Ikastegiek eduki antzeko proposamenak aurkezten badituzte proposamen bakarrean multzokatu ahalko dira.

Nahiz teknikoki nahiz ekonomikoki bideragarri diren proposamenek gazteen proposamen zerrenda osatuko dute. Ondoren, alkateak onetsi beharko du, behin bozeramaile-batzako Udalaren talde politikoen bozeramaileei entzunda.

Ikastegiak eginiko proposamenetariko bat balioespen teknikoagatik ezetsiko balute, ikastegiak haren ordezkariak artean adostasunik gehien lortu duten proposamena- 4., 5., eta 6. tokian geratu direnak, hurrenez hurren- aurkeztu dezake, gehienez hiru direlarik.

Ikastegi parte-hartzaile bakoitzak bozketarako fasera igaroko diren proposamen zerrenda jasoko du.

### **D. BOZKATU PROPOSAMENAK**

Parte-hartzeko betekizunak betetzen dituen gazteak boto bakarra emateko eskubidea izango du. Bertan, onetsitako proposamen zerrendan dauden gazteen proposamen guztietatik bost (5) hautatu beharko du.

Horretarako, berariazko inprimaki edo papeleta bat bete beharko du lehenetsunaren araberrako bost proposamen adieraziz. Hori horrela, gazte parte-hartzaileen artean adostasunik gehien lortu duten proposamenak lehenetsiko ditugu.

16 eta 20 urteko gazte batek bi prozesuetariko batean soilik eman dezake botoa; hots: herritar orori zuzenduriko prozesu aholku-emailean edo ikastetxeetako gazteen prozesu deliberatibo eta aholku-emailean. Bietan botorik emango balu, ikastegian emandako botoak baino ez luke balio izango eta horixe gailenduko litzateke.



a) Botoaren izaera eta ematea

Botoa isilpekoa da eta NANaren zenbakia emandako bototik kendu egingo da pribatutasuna bermatze aldera. Portugaletako Udalak botoa kenduta botoa eman dutenen NAN zerrendan sarbidea izango du.

Parte-hartzaileari NANA eskatuko zaio herritarrek boto bakarra emango dutela bermatu ahal izateko eta Udalaren erroldan egiaztapena egiteko ere bai.

Botoa emateko bideak bi hauek izango dira: aurrez aurrekoa eta lineakoa. Dena delarik ere, parte-hartzaileak bide biak erabiliko balitu aurrez aurrekoa baino ez litzateke aintzat hartuko.

b) Aurrez aurrekoa:

o Aurrez aurrekoa:

- Herriko zenbait kaletan herritarrei informazioa emateko paratuko ditugun karpetangaldetegi-eredua utziz.
- Aurretik iragarriko ditugun Udal zentroetan paratuko ditugun hautetsontzietan galdetegi-eredua utziz.

o Lineakoa:

- [www.portugaletaON.org](http://www.portugaletaON.org) webgunean gaitutako ataleko galdetegia betez. Horretarako, ezinbestekoa da sisteman aurretik izena ematea eta ondorengo berrespena jasotzea.

c) Botoak zenbatu

Parte-hartzeko betekizunak betetzen ez dituzten parte-hartzaileen botoak baliogabetuko dira.

Bost proposamen baino gutxiago adierazten dutenen botoak baliogabetuko dira.

Aitzitik, bost proposamen baino gehiago, errakuntzaz, adierazita badaude, lehenengo bost proposamenak soilik hartuko dira aintzat.

Botoak zenbatzeko orduan lehentasunaren ordenaren arabera proposamenei ematen zaien puntu-esleipena aintzat hartuko da. Zenbaketarako Dowdall metodoari jarraituko diogu. Honatx azalpena:

- Lehen tokian aukeratutako proposamena: puntu 1
- Bigarren tokian aukeratutako proposamena: puntu erdi
- Hirugarren tokian aukeratutako proposamena: heren bat puntu
- Laugarren tokian aukeratutako proposamena: laurden bat puntu
- Bosgarren tokian aukeratutako proposamena: bosten bat puntu



Bozketaren emaitza hauxe izango da: proposamen bakoitzak lortutako puntu guztien batuketa. Bozketaren metodo horrek emaitzen proportzionaltasuna bermatzen du. Halako moldez, herritarren adostasun gehien duten proposamen hautatuak sustatu nahi ditu.

### **7.3. EMAITZEN BERRI HERRITARREI EMAN**

Behin prozesu osoa amaituta eta emaitzak lortuta, herritarrei aurkeztuko zaizkie. Udalaren bide anitz erabiliko dira herritarrek haien berri izateko.

Halaber, Gobernu Ireki eta Herritarren Parte Hartze eta Berrikuntza Batzorde Informatzaile Iraunkorrearantz prozesuaren zehazkizunen gaineko txosten bat mahairatuko da.

Aurkezpen publiko hori aurrekontuaren hasierako onespeneraurretik egingo da.